

LEGAZPIKO “HAURREN UDA IKASTARORAKO” ZUZENDARIA KONTRATATZEKO OINARRIAK 2017

1. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen helburua Legazpiko Udaleko Euskara Sailak antolatzen dituen “Haurren uda ikastarorako” zuzendaria aldi baterako hartzeko deialdia arautzea da.

Kontratuaren iraupena uztailaren 3tik 21 arte (biak barne) izango da eta lanaldia, Udalak aipatutako programari aurre egiteko beharrak kontuan izanik ezarriko duena izango da.

Ordainsaria: Legazpiko Udaleko ordainsarien taularen 7. maila.

2. Prozesuan parte hartzeko baldintzak.

Onartua izateko eta, hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

1. 18 urte beteta izatea, izena emateko epea bukatuko denerako.
2. Aisialdiko zuzendari titulua izatea.
3. Legazpikoa izatea eta bertan bizitzea edo inguruko herri txikietakoa izan arren, oinarrizko ikasketak (LH eta DBH) Legazpin egindakoak izatea.
4. Euskaraz ongi ulertu eta hitz egitea.
5. Funtzioak behar bezala betetzea eragotz dezakeen gaixotasunik nahiz muga fisikorik ez izatea.
6. Inolako administrazio publikoaren edo autonomia erkidegoetako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzutik diziplina-espeditente bidez baztertu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.
7. Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean agertzen ez direla egiaztatuko duen agiria aurkeztea (Udalak berak eskuratuko du agiri hori hautagaiak horretarako bere baimena ematen badu).

3. Eskabideak aurkeztea.

Epea: maiatzaren 8tik 19ra.

Lekua: Legazpiko udaletxeko Herritarren Arreta-bulegoan. **Ordutegia:** 8:00etatik 15:00etara.

Halaber, aukera izango da, azaroaren 1992ko 26 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak, 38.4 artikuluan araututakoari jarraiki, eskaerak posta-administrazioetan aurkezteko. Horrela egiten bada, eskaerak Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio kartazal ireki batean, posta bulegoko funtzionarioak data eta zigilua jarri diezaion, eskaerak aurkezteko epearen barruan. Baldintza hori betetzen bada soilik onartuko da posta-bulegoko aurkezpen eguna Erregistro Orokorreko sarrera-data gisa.

4. Aurkeztu beharreko agiriak.

- Eskaera orria beteta (www.legazpi.eus webgunean zein Legazpiko Udaleko arreta-bulegoan egongo da eskuragarri).
- Aisialdiko zuzendari titulua.
- Legazpin erroldatuta ez dagoenak, oinarrizko ikasketak Legazpin egin dituela egiaztatuko duen agiria.
- Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatuko dituzten agirien kopiak (iaz aurkeztu badira, ez dira berriz aurkeztu beharko).
- Azken urteko lan-ibilbidearen agiria.

5. Kalifikazio-epaimahaia.

Merezimenduak baloratuko dituen epaimahaia honako kideek osatuko dute:

- Lehendakaria: Euskara saileko zinegotzi ordezkaria
- Kideak: udaletxean ordezkaritza duten talde politikoetako ordezkari bana
- Idazkaria: euskara teknikaria

6. Hautaketa-prozesua.

Ondorengo irizpideei ezartzen zaizkien puntuazioen arabera, hautagai bakoitzeko puntuazio bat aterako da eta horren arabera kontratazioa egiteko erabiliko den hurrenkera lortuko da.

* Titulazioa:

- Aisialdiko zuzendari titulua:
 - ✓ Euskaraz burutu bada: 3 puntu

* Euskara:

- 3HE / EGA / baliokidea: 3 puntu.

* Lan-esperientzia:

- Udaleku itxietan zuzendari bezala esperientzia: 15 eguneko 1,5 puntu, gehienez 3 puntu.
- Udaleku irekietan zuzendari bezala esperientzia: udaleku bakoitzeko puntu 1, gehienez 4 puntu.
- Udalekuetan begirale bezala esperientzia: udaleku bakoitzeko 0,5 puntu, gehienez 2 puntu.
- Ludoteka, aterpetxe edo gazteleku batean koordinatzaile lanak: urte bakoitzeko puntu 1, gehienez 2 puntu.
- Ludoteka, aterpetxe edo gazteleku batean hezitzaile-lanak: urte bakoitzeko 0,5 puntu, gehienez puntu 1.

* Langabezia: azkeneko urtean (2016ko ekainetik) lanik gabe egondako denbora aintzat hartuko da. Horretarako, lan ibilbidearen gaineko agiria (lan-bizitza) aurkeztuko da (901 502050 telefonora deituta) eta bertan agertutako lan egindako egunen arabera banatuko dira puntuak honela:

- 2016ko ekainaren 1etik izena emateko epea hasi arte 60 egun baino gutxiago lanean eman dutenek 3 puntu jasoko dituzte.
- 61 egun baino gehiago eta 120 egun baino gutxiago lanean eman dutenek, 2 puntu jasoko dituzte.
- Azkenik, 121 egun baino gehiago eta 180 egun baino gutxiago lanean eman dutenek, puntu 1 jasoko dute.

7. Izangaien zerrenda.

Berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez hurren:

1. Ikasketak (gizarte arlokoak eta maila gorenekoak lehenetsiko dira)
2. Lan gabe emandako denbora
3. Begirale titulua euskaraz eskuratu izana
4. Zuzendari tituluaren antzinatasuna (lehenago eskuratu izana)

Eta irizpide horiek aintzat hartu eta gero, hala ere berdinketa ematen bada, puntuetan berdinduta dauden gainerako hautagaiekin zozketa egingo da.



**LEGAZPIKO
UDALA**



Hautaketa bukatu ondoren, Epaimahaiak lortutako puntuazioaren ordenaren arabera zerrenda argitaratuko du Legazpiko Udaleko iragarki taulan eta Web orrian, eta onarpen proposamena igorriko du, aurretik aipatutako kontratazioak egiteko.

8. Aukeratutakoaren betebeharra.

Lanerako kontratatuko den zuzendariak, haurren uda ikastaroaren ardura izateaz gain, gerta daitezkeen ordezkapenak beteko ditu eta begiraleek egin beharreko 4-5 orduko prestakuntza-ikastaroa gidatuko du. Ikastaroaren eguna aurrerago zehaztuko da.